

Zamudiok, Olaberriak eta Ajangizek jarraitzen dute izaten, 2020an, Euskal AEn per capita BPG handiena duten udalerriak

Euskal AEko hiru hiriburuak dira BPG bolumen handiena sortzen duten udalerriak, eta, haietan, zerbitzueta jarduerak nagusitzen dira

Zamudioko udalerriak, Bizkaiko lurralde historikoan, Euskal AEn per capita¹ barne-produktu gordinik handiena duen udalerria izaten jarraitzen du 2020an, eta, ondoren, Olaberriak, Gipuzkoan, eta Ajangizek, Bizkaian ere bai, Eustatek emandako datuen arabera. 2000. urtean ez bezala, 2020an Ajangiz eta Loiu per capita BPG handiena duten lehen bost udalerrien artean daude, eta Izurtza eta Legutio udalerriak, berriz, ez.

Emaizta horiek COVID-19ak 2020an eragindako pandemiaren ondoriozko testuinguru sozial eta ekonomikoaren barruan aztertu behar dira; izan ere, Euskal AEko ia udalerri guztien BPGren bilakaera negatiboan du eragina.

Euskal AEko udalerriak, biztanleko BPG handiena dutenak (eurotan) eta 4 sektoretan banatuta (%). 2020

	Biztanleko BPGa	SEKTOREEN BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Euskal AE	32.702	0,8	22,8	5,6	70,8
Lurralde historikoak					
Araba/Álava	34.491	1,4	30,3	4,6	63,7
Bizkaia	31.728	0,8	17,3	5,6	76,2
Gipuzkoa	33.433	0,6	27,6	5,9	65,9
Udalerriak					
1 Zamudio	468.462	0,1	45,5	4,1	50,4
2 Olaberria	256.140	0,2	79,0	0,9	19,8
3 Ajangiz	210.086	1,0	82,2	0,4	16,5
4 Aduna	178.802	0,4	44,4	1,7	53,5
5 Loiu	169.649	0,2	26,4	6,0	67,4
6 Arama	169.468	0,4	86,6	3,5	9,5
7 Zierbena	161.971	0,8	65,6	0,9	32,7
8 Mallabia	144.776	0,8	75,9	1,0	22,3
9 Berantevilla	135.331	4,4	76,8	4,0	14,8
10 Etxebarria	131.391	1,1	88,8	1,3	8,8

Data 2022ko Abenduaren 7a

Iturria: Eustat. Udal BPG

Zamudio (Bizkaia) egitura ekonomiko sendoko udalerria da; egitura ekonomiko hori industria- eta zerbitzu-enpresetan oinarritzen da. Olaberria, Gipuzkoan, eta Ajangiz, Bizkaian, bigarren eta hirugarren postuetan daude, hurrenez hurren. Berantevilla, Araban, bederatzigarren postuan dago per capita BPG handiena duten udalerrien artean. Udalerri horiek industria-izaera nabarmena dute, eta industria-sektorearen pisua % 75,0etik gorakoa da guztietan.

Gasteizek Arabako BPGren % 73,4 sortzen du

Gasteizek, Arabako lurralde historikoko hiriburuak, lurraldeko BPGren % 73,4 kontzentratzen du. Era berean, Araban biztanle-kontzentrazio handiena duen udalerria izanik, BPG hori sortzen duten zerbitzuen bolumen handia ere biltzen du; Higiezinak jarduerak eta Administrazio publikoen jarduerak dira nabarmenenak.

BPG handiena duten Arabako eskualdeak eta udalerriak (milaka euro), 4 sektoretan banatuta (%). 2020

	BPG	SEKTOREEN BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Araba/Álava	11.388.760	1,4	30,3	4,6	63,7
Eskualdeak					
1 Arabako Lautada / Llanada Alavesa	8.903.403	0,4	25,4	4,7	69,4
2 Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	1.062.747	0,9	38,7	5,4	54,9
3 Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	633.504	11,2	56,8	2,3	29,7
Udalerriak					
1 Vitoria-Gasteiz	8.360.695	0,2	25,1	4,8	70,0
2 Laudio/Llodio	623.270	0,2	33,4	5,3	61,0
3 Amurrio	323.527	1,0	48,9	5,4	44,7
4 Legutio	225.942	0,5	75,1	1,5	22,9
5 Oyón-Oion	210.072	6,7	65,3	2,8	25,2
6 Iruña Oka/Iruña de Oca	162.988	0,7	30,0	4,2	65,0

Data 2022ko Abenduaren 7a


Iturria: Eustat. Udal BPG

Oro har, BPG gehien sortzen duten Arabako lurraldeko 6 udalerriek lurraldeko guztizkoaren % 87,0 kontzentratzen dute. Laudio da Araban BPG gehien duen bigarren udalerria, Beiraren industria edo industria horrekin lotutako Handizkako merkataritza jarduerari esker, besteak beste. Hirugarren eta laugarren postuan Amurrio eta Legutio daude; haien enpresa-egitura industrian oinarritzen da.

Bosgarren postuan Oion dago; udalerri horrek industria-izaera nabarmena du, hala nola Edariak edo Ingeniaritza mekanikoa jarduerengatik. Seigarren postuan, Iruña Oka dago; udalerri horren egitura ekonomikoa, nagusiki, Administrazio publikoen jarduerak edo Salgaietarako lurreko beste garraio batzuk zerbitzuetan oinarritzen da.

BPG, Arabako udalerrien arabera. 2020

Milaka euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Bilbo Handiko sei udalerrik Bizkaiko BPGren % 54,2 kontzentratzen dute

2020an BPG gehien sortu duten Bizkaiko udalerrien artean, Bilbo Handia eskualdeko udalerrien kontzentrazio handia dago. Bertan, lurraldean BPG gehien duten 6 udalerri daude; haietan, Bizkaiko guztizkoaren % 54,2 kontzentratzen da. Zerrenda horren buru Bilboko udalerria dago; 2020an, Bizkaiko BPGren % 31,9 sortu du.

BPG handiena duten Bizkaiko eskualdeak eta udalerriak (milaka euro), 4 sektoretan banatuta (%). 2020

	BPG	SEKTOREEN BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Bizkaia	36.379.021	0,8	17,3	5,6	76,2
Eskualdeak					
1 Bilbo Handia / Gran Bilbao	27.941.894	0,1	13,0	5,7	81,1
2 Durangaldea / Duranguesado	3.870.707	0,4	37,7	4,3	57,6
3 Plentzia-Mungia	1.470.145	1,2	24,9	10,2	63,7
Udalerriak					
1 Bilbao	11.616.737	0,0	3,6	4,7	91,7
2 Barakaldo	2.306.026	0,0	6,8	8,7	84,5
3 Leioa	1.576.721	0,0	16,5	4,1	79,4
4 Zamudio	1.530.933	0,1	45,5	4,1	50,4
5 Gernika	1.512.961	0,0	2,8	5,3	91,8
6 Basauri	1.157.312	0,1	23,7	6,0	70,3

Data 2022ko Abenduaren 7a


Iturria: Eustat. Udal BPG

Bilbo, Barakaldo, Leioa, Getxo eta Basauri Bilbo Handiko udalerriak dira rankingeko buru, eta haiek guztiek honako bereizgarri hauek dituzte: 30.000 biztanle baino gehiago dituzte eta zerbitzuen sektoreak presentzia handia du. Nabarmentzekoak dira Higiezinak jarduerak eta Administrazio publikoen jarduerak, bai osasun-arlokoak bai hezkuntzakoak, eta Merkataritza, besteak beste.

Zamudio BPG bolumen handiena duten gainerako udalerrietatik bereizten da, biztanle gutxiago duen udalerria delako (3.400 biztanle baino gutxiago), eta haren ekoizpen-egitura industria-sektorean (% 45,5) eta zerbitzuen sektorean (% 50,4) oinarritzen delako. Garrantzia berezia dute udalerrian Garraio-materialaren ekoizpenari lotutako enpresek, bai eta industriari lotutako Zerbitzu profesionalak eta teknikoak eskaintzen dituzten enpresek ere.

BPG, Bizkaiko udalerrien arabera. 2020

Milaka euro



Iturria: Eustat. Udal BPG

Gipuzkoan biztanle gehien duten udalerrien BPG zerbitzuen sektorean oinarritzen da

Gipuzkoako lurralde historikoan sortutako BPGren % 50,4 6 udalerrik sortzen dute, eta % 29,6, lurraldeko hiriburuak baino ez, Donostiak.

BPG handiena duten udalerrien egitura sektoriala kontuan hartuta, oro har, zerbitzuen sektorearen pisu handiena nagusitzen da, batik bat biztanle kopuru handiko (50.000 biztanle baino gehiago) udalerrietan, besteak beste, Donostian eta Irunen. Esanguratsuak dira Higiezinak jarduerak bi udalerrietan, bai eta Administrazio publikoak Donostian edo Salgaietarako lurreko beste garraio batzuk eta Garraioari lotutako jarduerak, Irunen kasuan.

BPG handiena duten Gipuzkoako eskualdeak eta udalerriak (milaka euro), 4 sektoretan banatuta (%). 2020

	BPG	SEKTOREEN BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Gipuzkoa	24.060.835	0,6	27,6	5,9	65,9
Eskualdeak					
1 Donostialdea	11.571.934	0,2	15,4	5,8	78,5
2 Debagoiena / Alto Deba	2.434.129	0,5	45,9	4,7	48,8
3 Golerri	2.399.274	0,6	54,6	5,1	39,7
Udalerriak					
1 Donostia / San Sebastian	7.118.473	0,0	5,1	5,5	89,4
2 Irun	1.694.578	0,1	17,3	7,5	75,0
3 Arrasate/Mondragon	938.966	0,2	28,4	5,8	65,7
4 Hernani	810.954	0,3	50,6	3,6	45,6
5 Beasain	801.605	0,1	66,6	2,8	30,4
6 Errenteria	769.670	0,1	23,1	5,7	71,0


Data 2022ko Abenduaren 7a

Iturria: Eustat, Udal BPG

Hernani eta Beasain udalerrietan, industria-jardueren presentzia handiagoa da, % 50,6 eta % 66,6koa, hurrenez hurren. Nabarmentzekoak dira Trenbide-materialaren fabrikazioarekin lotutako jarduerak Beasainen edo Erabilera orokorreko makinekin edo Paperaren industriarekin lotutakoak, Hernanin.

BPG, Gipuzkoako udalerrien arabera. 2020

Milaka euro



Iturria: Eustat, Udal BPG

¹ **Ohar metodologikoa:** Datuak hobeto interpretatzeko, **udal BPG** eta **Udal-errenta** bereizi behar dira. BPG ekoizpenarekin eta lurraldean aberastasuna sortzearekin lotuta dago, eta ekoizpen-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, berriz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Bestalde, BPG per capita terminoetan eskaintzen da, udalerrien tamaina birdimentsionatzeko –haitan sortzen den BPG biztanleriaren artean zatituz–, eta, hala, tamaina oso txikiko udalerrien eta tamaina handiko udalerrien jardura ekonomikoaren arteko konparaziorako bide ematen da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62